



Nortasun agiria

Alec Reid 1931n jaio zen Dublinen (Irlanda). 1950ean erredentziotar bihurtu zen, eta zazpi urte geroago apaiztu. Limerick, Dundalk eta Galwayen izan zen apaiz 1961ean Belfasteko Clonard monasteriora joan baino lehen. Monasterio hori unionisten Shankill Road kalearen eta erkidego katolikoaren artean dago kokatua, eta talaia horretatik hasi zen bakegile lanetan. 1988an *New York Times*en azalean atera zen, hileta-elizkizun errepublikanoetan sartu zirela medio, IRAk lintxatutako soldadu britainiarrei azken erritoak ematen. 1980ko hamarkadaren bukaeran, Sinn Feineko buru Gerry Adamsen eta SDLPko John Humeren arteko bilerak ahalbidetu zituen, eta IRARI armak uzteko bidea zabaldu zion. 2001ean Euskal Herrira etorri zen eta lau urtean Euskal Herriko bake prozesua josten ibili da agente guziekin hitz eginez. 2003ko urtarrilean Sabino Arana Fundazioak saritu zuen bakea eta adiskidetzeara sustatzeko ahaleginengatik.

Alec Reid

«Agian beldur dira Batasunak Sinn Feinen indarra har ote dezakeen»

“Euskararen alde zer egin behar da Joxemiel?”, Lazkao Txikik azkar erantzun zion hitzezko puntuari, “euskararen alde zer egingo diagu ba? Hitz egin moteil, hitz egin!” Politikarien artean ere ez da besterik entzuten, “hitz egin behar da, hitz egin”. Eta ez naiz harritzen Alec Reid bakegilerik onenetakoa izateaz, hizketan badaki; lehenengo galdera egin nion, eta erantzuten bukatu zuenerako ilunak hartua zuen eguna, bi ordu, bi ordu hizketan... Nire gidoiko hurrengo galderari begiratu nion berriro ere, eta “...isilean egin beharreko lana da bitartekariarena, eta pentsatzen dut gauza asko izango dituzula esan gabe, esan ezin dituzunak, ezta?”. Ez nintzen ausartu galdetzen.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Dani Blanco

Ostiral Santu eguna pasa berria da, eta Pazko Igandea ere bai. Baina hemen ez da akordio berririk lortu, eta hilda omen dagoen prozesua ere ez dirudi berpiztu denik.

Ez dut uste prozesua hila dagoenik. Gatazka bizirik izango den arte prozesua ere biziko da. Mutu agian, isilik, baina beti egongo da aurrerako pausoak ematen saiatuko den jendea.

Beraz, sinesten duzu berpiztean?


Jakina. Horretarako, alderdien mahaia da garrantzitsua. Lehenago, komunikazio klandestinatorik ez, baina komunikazio pribatua egon zen, PSOE, Aralar, EAJ, EA eta Batasunakoen artean alderdien mahai hori nola antolatuta erabakitzeke. Horrelako mahai batek aurre prestaketa eskatzen baitu; non izango den, zenbat emakumezko eta zenbat gizonezko izango diren, nork ordainduko duen, eta abar. Entzuna naiz ia akordio batera heldu zirela ere, eta ez dago dudarik prozesuaren giltza alderdien mahaia dela.

Baina bada lelo bat, nahiko errepikatua: Batasunak indarkeria kondenatzen ez duen bitarte ez gara berekin eseriko.

Lelokeri asko entzuten da, eta horietako bat da hori, “ez dut Batasunarekin hitz eginen Batasunak ETA kondenatzen ez duen arte”. Hori Sinn Feini IRA kondenatzeko galdetzea bezala da. Pentsatu behar da egoera honetan ETArengan eragiteko gaitasuna duen alderdi bakarra Batasuna dela, eta Batasunari ETA kondenatzeko galdetuz ETArekiko eragin eta komunikabide bakarra suntsitzen saiatzen ari zara. Jokabide horrekin bakera iristeko izan zenezakeen lagunik onena suntsitzen duzu, alegia, ETArekiko eragin bidea. Eta hori ergelkeria handia da.

Zuk hitz egin duzu ETArekin zuzenean?

ETAk berak gutun bat idatzi zidan niganako interesa azalduz, eta etxe batean bildu ginen, bazkari baten jiran. Gogoratzen naiz nola eseri ginen, eta euskaraz hasi ziren, ez nuen piperrik ulertu. Itzultzailea nuen, eta hark



azaldu zidan mahaia bedekatzeko galdetu zidatela. Bedekatu nuen. Askok ez dio garrantzirik emango, baina niri gauza bat erakutsi zidan: errespetatzen nindutela. Eta bazkari hartan jakin nuen ETakoek bide baketsu eta demokratikoetatik egin nahi zutela aurrera, eta hori zela haien erabakia. ETakoak ez dira, Irlandan esaten den bezala, “*basques separatists*”, ezta erokeriak egiten dituen jendea ere. Hemen, dagoeneko ikasi dute; Irlandan, ikasten hogeit urte kosta zen lezioa. Eta lezio hori zera da, nahiz eta autodeterminazioa galdetu, hemengo gatazkan ez daudela euskaldunak bakarrik, espainolak ere badaudela, eta horiek ere badituztela beraien eskubideak, euskaldunek bezalaxe, eta hitz eginda hartutako erabakiek bien eskubideak bete behar dituztela. Abertzale denek onartzen dute hori, eta hori meritu handia da.

Irlandarra eta apaiza zarelako, bestela honezkerodeitu zintuzten deklaratzera.

Irlandar esaera ezaguna da: “*I’m going to end up in a lonely prison cell*”, ziega bakarti batean bukatuko dut. Tira, erdi broman esan dut, baina Mallorcara konferentzia bat ematera joan nintzenez, han, aireportuan, beste apaiz bat nuen zain, eta polizia batekin zegoen. Han egin nituen mugimendu guztiak poliziak segitu zituen. Bartzelonara joan nintzenez ere beste bi polizia nituen atzetik, eta azkenean, beraiekin hitz egitera joan nintzen. Ez zutela nire atzetik zertan ibili, eta joateko etxera lasai esan nien. Ba al dakizu zer erantzun zidaten? “Zain-

Gerra zibil bat

“Britainiar armada okupazioaren irudia izan da, eta IRAk egin duen borroka guzia kolonoen kontra egin du. Kontua da britainiar gobernuak ez zuela nahi soldadu ingelesak hiltzerik, Ingalaterrarako oso berri txarra zelako hori, eta beraz britainiar armada kendu eta haren lekuan polizia jarri zuen. Polizia unionista zen, unionistak, baina irlandarrak. IRAk horren kontra egin zuen, beraz funtsean IRAk hil duen jendea irlandarra izan da. Sinn Feinek ere esan zuen gatazkak eraginako hildako bakarrak irlandarrak zirela, unionistak baina irlandarrak. Eta hori gerra zibil bat bezalakoa da”.

du egin behar zaitugu, zerbait gertatzen bazazu arazoak izango ditugu eta”, kar, kar, kar.

Barajasko atentatua nola ulertzen duzu?

Alderdien arteko elkarrizketak sortu behar ziren, alderdien mahaia, eta ez zen deus sortu. Alde batetik, ETak horregatik jarri zuen bonba. Bestalde, beraiekin tratuan ari denak badaki IRA edo ETA bezalako erakundeak ezin direla suntsitu, baina ahuldu daitezkeela, eta ahultzeko bide bat hau da: bake prozesu demokratiko bat hitz eman, lehenik eta behin armak utzi behar dituela galdetu, eta gero hitz emandakotik ezer ere ez egin. Arduragabeke-ria handia da ETARI edo IRARI hori egitea, horren ondorioa belaunaldi gazte batek IRA edo ETA berri bat sortzea izan baitaiteke. Eta ez dago hori baino okerragorik, Irlandan aspaldi esan zidaten, “ez dago hemeretzi edo hogeit urteko militanteak baino gauza arrisku- tsuagorik. Gazte horiek buruzagi zaharrago eta erradikalago batekin joaten badira beste hogeit urteko gatazka hasiko da, askoz suntsi- keta eta hildako gehiagorekin”. Berriz hasiz gero are zailagoa izango da gelditzea, ziria sar- tuko ote zaien beldur izango baitira. Eta garbi dago gatazka ezin dela kalean konpondu, mahai inguruan konpondu behar da.

Zerbait aipatu duzu, eta maiz aipatu dira Gobernuak eta ETak adostutako konpromisoak. Zer idatzi zen?

Ez dut esango akordio idatzirik bazenik, baina garbi dago ETak ez zituela armak utzi-



ko piknik batera joateko, armak uzteko arrazoi eta bermeak behar zituen, bestela buruzagiek ETako kideen babesa eta adostasuna galduko zuten, “zergatik gelditu? –galdetuko zieten– berrogeita hamar urteko borroka hutsaren truke saldu? Hori ez da bakea negoziatzea, hori amore ematea da”, leporatuko zieten, eta bereizketa bat egongo zen. Beraz berme hauek behar ziren: Batasuna legalizatzea, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, eta epe onargarri batean alderdiak hizketan hastea. Hori agindu zitzairen.

Eta datozen hauteskundeetan Batasuna legala ez bada prozesuan sinesten segituko duzu?

Tira, badirudi Batasuna legalizatzeke prozesua aurrera doala, eta agian iritsiko dela. Baina badira zenbait bide hori oztokatzen ari direnak. Batasuna ahal duen dena ematen ari da, gatazka modu bakeetsuan eta demokratikoki konpontzeko bitarteko denak ari da jartzen. Batzuetan bere militantziaren kritika eta eza-dostasuna arriskuan jartzera-

CONFORT HIPOTEKA >GO

zeinen eroso

Kuota murriztuak gehien behar duzunean eta pixkanakako igoera eta ezustekorik gabe amaiera arte.

Zure bizitza berriari askatasunez ekiteko

%20
gutxiago hasierako kuotan, kuota iraunkorreko mailegu baten aldean

Kuoten adibidea:
Lehen urtean: **558,88 €**
Hirugarren urtean: **561,42 €**
Hamabosgarren urtean: **726,26 €**
Azken urtean: **1.058,03 €**

EBOk 2007ko urtarilean argitara emandako urtebeteko azken euriborra (%3,921) oinarritut harturik kalkulatu da adibidea hau, 150.000€-ko mailegu batentzat 35 urtetara, urteko progresioa %2koa izanik (maileguaren bizialdi guztian euribor bere izango dela joz kalkulatu dira kuotak). 36 urtetik beherakoentzat balio du eskaintza honek.

Interes-tasa: **euribor + %0,55**
Urteko kuota progresioa: %2
Urteko berrikuspina
Epea: 35 urte arte
Irakiera-komisioa: %0,5
Amortizazio aurreratuaren komisioa: %0
Kitapen aurreratuaren komisioa: %1

U.T.B. adibidea: %4,60

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

no, diskurtsoa gehiegi goxatu dutelakoan. Eta hala ere batzuk legalizatzeko bidea oztopatzen sumatzen ditut, agian beldur dira Ipar Irlandan Sinn Feinek hartu duen indarra har ote dezakeen.

Zapaterorengan baduzu fedea?

Ez naiz sekula berekin egon, baina inpresioa dut, benetako momentua iristen denean, bere interes pertsonalak baztertu eta interes orokorraren alde egingo duen pertsona dela. Horrelako bat behar da.

Zu bezalako bat ere behar izan zen, batez ere Irlandako bake prozesuan. Nola sartu zinen politika kontuetan?

1961ean Ipar Irlandara bidali ninduten, Belfast mendebaldeko monasterio batera, *Clonared monastery* izenekora. Ezaguna da Irlandan, bake prozesuan izan duen parte-hartzeagatik. Han segidan ohartzen zara gatazka bat badela, Belfastera joaten zara eta giro hotza sumatzen duzu, nazionalisten aurkako giroa. Zure herria da, baina ez da. Denek sentitzen dute hori. Gainera gatazka gure monasterioko ate kanpoetan bizi zen, hantxe ikusten genuen dena; agian IRA ofizialeko norbait, ondoko kalera joan, eta IRA probisionaleko norbait hiltzen, ate kanpoan bertan. Beraz nahi edo ez gatazkak hunkituak ginen, eta hori buka zedin engaiatu ginen. IRAko liderrak ezagutzea lortu genuen, batez ere lider lokalak. Beraiekin afaltzeko ohitura hartu genuen, eta konturatu ginen jende horrekin hitz egitea posible zela, arrazoiz jokatzeko prest zeudela. Azkenean doze-na bat estrategia ezberdin eta hogeit urte behar izan genituen, baina lortu genuen bakea.

Elizak hutsak daudela esaten da, elizak indarra galdu duela, baina boterea ez. Ipar Irlandan bezala Euskal Herrian, agente guztiek, eta estatuak berak ere, elkarri baino kasu gehiago egin diote apaiz bati.

Kuriosoa da, Gerry Adamsek ere horrelako zerbait esan zidan monasteriora etorri zen batean. Ni gaixorik egon nintzen, estresak jota, IRAko presoek lehen gose greba egin zutenean. Urtebete pasa nuen ospitalean, hiltzorian, eta medikuak agindu zidan, nire hobe



beharrez, politikan berriz muturrik ez sartze-ko. Sei hilabetez medikuaren esanera ibili nintzen, baina jende asko etorri zitzaidan laguntza eske, eta Gerry Adamsek bisitatu ninduenen zera esan zidan: “Alec, berriz hasi behar duzu, eliza da gatazka honetan zerbait egin dezakeen erakunde bakarra”. Eta horrela hasi nintzen berrir.

Kartzelara joaten zinen preso errepublikarrak bisitatzera, eta presoan mezuak zuk ateratzen omen zenituen, ezkutuan. Kontatu pasadizo hori.

Igandero joaten nintzen kartzelara, eta hiru meza ematen nituen, kartzelako hiru sekziotan.

Batzuk konfesatzera ere etortzen ziren, tabako bila beste zenbait. Kontua da meza ematen genienean presoek mezuak ematen zizkigutela beren emazteei helarazteko. Mezu politikoak ere ateratzen genituen, komuneko paper zati ttikietan idatzita, eta nik trikotaren azpian ateratzen nituen. Ez sinestekoa da zein mezu luzeak idazten zituzten, gero kiribildu eta trikota barruan besapeetan ateratzen nituen. Behin hogei-ta bost bat mezu ateratzeraino iritsi nintzen. Goitik behera miatzen ninduten irteeran, baina ez zuten sekula deus atzeman. Aurkitu izan balute kartzelan sartuko ninduten.

Bobby Sands ezagutu zenuen?

Bai, kartzelan ezagutu nuen. Bera ere etortzen zitzaidan meza aitzin, eta mezuak bidaltzeko galdetzen zidan, mezu politikoak zituen. Izan ere IRAko presoek bigarren gose greban bera bihurtu zen presoek talde buru. Lehen gose greban Brendan Hughes izan zen, baina ingelesekin negoziatu ondoren gose greba bukatu behar zela erabaki zuen, eta horrekin presoek lidergoa galdu. Bobby Sandsek hartu zion lekukoa, eta preso batzuekin bigarren gose greba bati ekin zion. Hughes moderatua bazen, Bobby Sands gizon gogorra zen, eta horren froga, hil arte segitu zutela.

De Juana beste Bobby Sands bat izan ote zitekeen beldurtu zinen?

Irlandan britainiar gobernuak ez zituen gose greban zirenak elikatu nahi, eta De Juana elikatu zuten. Baina nire beldurra zen, elikatuta ere ez ote zen hilko, 1920an Mac Steamy irlandarra bezala. De Juana hil izan balitz kalean erreakzio handia piztuko zen, baina Jaungoikoari esker dena konpondu zen, eta horretan espainiar gobernuak egin dituen ahaleginak ere eskertu beharrekoak dira.

Ipar Irlandakoa eta Euskal Herrikoa parekatzen ari naiz, baina han bada zerbaitez ezberdina. Protestantek ezkondu egiten dira.

Bai, Paisley jauna oso azkarra da eta ez du beldurrik. Aldatu egin da eta boterea banatzeko ados jarri da. Gerry Adamsekin bildu da, elkarrekin argazkietan atera dira, eta oso ongi konpontzen dira bata bestearekin. Pentsa, parlamentuko bigarren gizona IRAko kide ohi bat izatea onartu du, Martin McGuinness. PP ez dago momentuz horretan, baina nire esperantza da, unionistek egin duten bezala, Jaungoikoari esker, PP ere ezkonduko dela. Orain oso modu ezkorrean jokatzeko dute, baina gerora prozesuan sartu nahiko dute eta hitz egin nahiko dute.

Ipar Irlandako gatazka bukatutzat jotzen duzu?

Bai, unionistek ez dute jada komunitate naziona-

AZKEN HITZA

Bakea lortzeko lau manamenduak

“Lehenengo manamendua da, gatazka batean, edo prozesu batean, batek garaile atera nahi badu Jaungoikoaren grazia behar duela, horrekin beti ateratzen da aurrera. Bigarren manamendua bizitzako balorerik gorenean bizitza duin baterako eskubidea dela da, eta ez dagoela prozesurik hori errespetatu gabe. Hirugarrena konponbidearen oinarria elkarriketa dela, dialogorik gabe ez dagoela ezer. Eta hitz egitea entzuten jakitea ere bada. Eta azken manamendua, perspektiba maskulinoa beharrezkoa den bezala, perspektiba femeninoa ere beharrezkoa dela, eta bien arteko oreka bilatu behar da gatazka konpontzeko”.

Esatera

Esan nola izena duzun eta esango dizut zer zaren:

“Irlandan txiste bezala kontatzen da: nazionalista baldin bazara, kaleak garbitzen pasa beharko duzu bizitza, unionista baldin bazara inspektore izango zara. Oroitzen naiz adibidez Althey izeneko gizon batez. Banekien familia irlandarrekoa zela, gaelikoz hitz egiten baitzuten etxean, baina Althey oso izen ingelesa da, eta normalean familia irlandarrek ez dute izen ingelesik hartzen, harritu egin nintzen. Egun batean zuzenean galdetu nion: ‘aizu, Althey zer da, zure abizena?’ Ezetz erantzun zidan, ‘ni Alphonses naiz, baina lan baten bila ibili nintzen eta erabaki nuen Althey bihurtzea, Alphonses nintzela esanez gero azkar esango baitzidaten, oh, ez, hau nazionalista bat da! eta baztertua geldituko nintzen’”.

lista mehatxu bezala ikusten, parlamentuan gehiengo nazionalista da, berdintasun batera iritsi dira, nazionalistek eta kolonoek lege berdinak onartu dituzte, eta horrek zortziehun urte luzeko Irlandako gatazkaren bukaera esan nahi du.

Zenbat pisu izan du erlijioak Ipar Irlandako gatazkan?

Kanpoko askok uste du Ipar Irlandakoa katoliko eta protestanteen arteko erlijio gatazka dela, baina hori ez da egia. Irlandakoa, oinarri-oinarrian, inbaditzaileen eta irlandarren arteko gatazka da. Inbaditzaileek ez dituzte inoiz irlandarrak guztiz konkistatu, eta irlandarrek ere ez inbaditzaileak. Eta horrela joan da gatazka luzatzen eta luzatzen. Erlijio gatazka baten inpresioa sor zezakeen inbaditzaileak katolikoak ezabatzen saiatu zirelako, baina ez da hala. Gaur egun Belfastera joaten bazara ikusiko duzu unionista sutsuenetako batzuk katoliko suharrak direla, eta egunero mezara joaten direla, eta ikusiko dituzu oso nazionalista sutsuak errotik protestanteak direnak.

Ipar Irlanda eta Hegoa bateratzea posible da Paisley lehen ministro izanik?

Hasteko, Ipar Irlanda ttikiegia da ekonomiko ki bere buruari eusteko, Hegoarekin elkartu behar du, eta Paisley bera ere ados dago horrekin. Hego Irlanda oso aberatsa dela ikusten du, Iparra ez dela Hegoaren erdira ere iristen, eta unionistak Hegoarekin akordio ekonomikoak lotzeko ados dira. Oraingoz Ipar Irlanda Ingalaterrako ekonomiaren menpe dago, eta hala izango da Irlandarekin harreman ekonomikoak sortu arte, baina Hegoa eta Iparra elkartuz gero jendeak Ipar Irlandan inbertituko du. Horrela Hegotik Iparrera *pound* asko joango dira, eta horri esker egingo du aurrera Ipar Irlandak. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, elkarriketaren bidea.